

O, BUGI, BUGI

O, BUGI, BUGI, BUGI BAI.

PARAN PAN, PAN-PAN, PAN, HEY!

HAU DA NIRE BEHATZA,
HAU DA BESTE BEHATZA,
HAU DA NIRE ESKUA,
HAU DA BESTE ESKUA.

O, BUGI, BUGI, BUGI, BUGI, BUGI BAI.

PARAN PAN, PAN-PAN, PAN, HEY!

HAU DA NIRE UKONDOA,
HAU DA BESTE UKONDOA,
HAU DA NIRE SORBALDA,
HAU DA BESTE SORBALDA.

O, BUGI...

HAU DA NIRE HANKA,
HAU DA BESTE HANKA,
HAU DA IPURDIA,
BERRIZ IPURDIA.

O, BUGI...

HAU DA BELARRI BAT,
ETA HAU DA BESTEA,
BURUA BEHERAKA,
BURUA GORAKA.

O, BUGI...

HAU DA NIRE BEGIA,
HAU DA BESTE BEGIA,
HAU DA SUDUR BAKARRA,
HAU DA AHO ZULOA.

O, BUGI...

NIRE GORPUTZA

NIRE GORPUTZAK GAILUR BAT DAUKA,

HEMEN GOIAN DAGO KOKATUA,

NIRE BURUA, ZURE BURUA,

BIZKORRENA DA MUNDUA.

HEMEN ESKUAK, HEMEN BESOAK,

BELAUNAK ETA ZANGOAK.

ZUTIK NAUKAZU,

MAKURTU NAHI DUT,

LURREAN IKUSTEN NAUZU.

MIHIAREN JOLASA

AURPEGIA, AHOA ETA BI EZPAINAK,
MIHIAREN ONDOAN DAUDE HORTZAK,
HAGINAK,
JOLASEAN ARI NAIZ MIHITXOAREKIN,
AHOTIK IRTEN NAHI DUT,
BADAKIT ZER EGIN.
BI KOLPE ATZETIK: BAT, BI,
TIRA BELARRITIK: BAT, BI,
ORAIN SUDURRETIK: BAT, BI,
GERO KOKOTSETIK: BAT, BI.

KORRO, KORRO, KORROAN (moldatua)

KORRO, KORRO, KORROAN,

JOLASEAN ETA KANTUAN.

KORRO, KORRO, KORROAN,

ORAIN DIRA BAI KONTUAK. (BERRIZ)

HANKA PUNTAZ UKITUAZ, 1, 2, 3,

BEHATZ PUNTAZ KOLPATUAZ, 1, 2, 3,

BELAUN GAINAZ UKITUAZ, 1, 2, 3,

UKONDOAZ KOLPATUAZ, 1, 2, 3,

BELARRIAZ UKITUAZ, 1, 2, 3,

SUDUR PUNTAZ KOLPATUAZ, 1, 2, 3,

IPURDIAZ UKITUAZ, 1, 2, 3,

HANKAK GORA ORAIN.

KORRO TXIRINBOLO

KORRO TXIRINBOLO

ZEIN POLITA DEN! (BERRIZ)

HANKA BAT, BESTE BAT,

ESKU BAT, BESTE BAT,

BEGIAK, AHOA,

GIRA TXIRINBOLO.

BI ESKU

BI BESO DITUGU

ETA BI ESKU.

BIETAN HAMAR HATZ,

HONELA MUGITZEKO.

BI HANKA DITUGU,

ZUTIK(AN) EGOTEKO.

BI OINAK DITUGU,

PAUSOAK EMATEKO.

SALTOKA, SALTOKA,

KALEAN JOLASTEKO!

XALALA, RIKI-RIKI!

XALALA! RIKI-RIKI!

XALALA! RIKI-RIKI!

DUTXAN DARDARAKA

UR HOTZAREKIN. (BERRIZ)

HARTU ESPONJA ETA XABOITU,

BURUA BUSTI,

IGURTZIZ GARBITU

ZILBOR ETA TITI.

JIRABIRA IPURDIA

MUGITU BETI,

BI OINETAN BUKAERA

EZ DAGO GAIZKI.

XALALA!...

IPURDIKOEN DANTZA

IZTERRAK,

TXALOAK,

BOSTEKOAK,

KRISKITIN EGIN... SALTO!

IZTERRAK,

TXALOAK,

BOSTEKOAK,

ETA BIRA EGIN... SALTO!

IZTERRAK,

TXALOAK,

BALANTZAKA...EMAN ESKUA ELKARRI!

BIRA, BIRA, BIRA,

BIRA, BIRA, BIRA,

BIRA, BIRA BEGIETARA BEGIRA.

BIRA, BIRA, BIRA,

IPURDIAK ELKARRI

BEGIRA JARRI (e)TA PUN!... ALDATU BIKOTEA!

DANTZARA TXALOAK

BURUA, LEPOA JOKA.

BAI, BAI!

BURUA, LEPOA JOKA.

BAI, BAI!

BURUA, LEPOA, BURUA, LEPOA JOKA.

BAI, BAI!

BURUA, LEPOA.

BURUA, LEPOA.

BAI, BAI!

BELAUNA, ORPOA JOKA

BAI, BAI!

BELAUNA, ORPOA JOKA

BAI, BAI!

BELAUNA, ORPOA.

BELAUNA, ORPOA.

BELAUNA, ORPOA JOKA

BAI, BAI.

BURUA, LEPOA.

BELAUNA, ORPOA JOKA

BAI, BAI!

SORBALDA, BULARRA JOKA

BAI, BAI.

SORBALDA, BULARRA JOKA

BAI, BAI!

SORBALDA, BULARRA.

SORBALDA, BULARRA.

SORBALDA, BULARRA JOKA

BAI, BAI!

BURUA, LEPOA.

BELAUNA, ORPOA.

SORBALDA, BULARRA JOKA

BAI, BAI!

DOMINO ABANTI

DOMINO ABANTI!

DOMINO PREGO!

BURUA GORA.

HANKAK OKERTU.

IPURDIA KANPORA .

BEGI BAT ITXI.

MINGAINA ATERA.

AURRERANTZ MUGITU.

TRIKITIXA, TRIKITIXA, TRIKITIXA XA XA